

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 237/2021 Foru Agindua, irailaren 7koa, Lezako (Araba) arau subsidiarioen 6. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzen duena

Erreferentziako aldaketa puntualaren izapidetzea ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren menpe dago; prozedura hori Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen du.

Prozedura horren esparruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak ingurumen dokumentu estrategikoa jaso du, Lezako Udalak bidalita, Lezako arau subsidiarioen 6. aldaketa puntualari buruzkoa, ingurumen ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak araututako gutxieneko edukiaren arabera; planaren zirriborroa ere jaso du.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, dokumentazioa hori jaso ondoren, hasiera eman zion, 2021eko ekainaren 4an, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari. Kontsulta epea hilabetekoa izan zen.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2021eko irailaren 2an eman zuten Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (21/85 espedientea).

1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatutako eremu geografikoa. Aztertutako aukerak


1.1. Aldaketa puntualaren ezaugarrien laburpena:

Aldaketa puntualaren xedea da Lezako udalerriko 5 poligonoko 652 lurzatia xehetasunez kalifikatzea, askotariko zerbitzuak (kultura, osasuna eta laguntza) eskaintzen dituen eraikin baten komunitate ekipamenduaren erabilera barne hartzeko. Erabilera berria lurzatiaren hegoaldean proposatzen da, 235 m²-ko azalera.

Aipatutako eremuan erabilera anitzeko zuzkidura eraikin berri bat egiteko udalak duen interesa da aldaketa horren justifikazioa. Aldaketaren xede den lurzatia udalaren jabetzakoa da, eta sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan jasotzen denez, erabilera eta jabari publikoko berdegune gisa kalifikatuta dago (benetan, zentzu hertsian, hala ez bada ere), eta bertan dago udal igerilekua eta gaur egun oso gutxi erabiltzen den kirol anitzeko pista bat.

1.2. Ebaluatutako eremu geografikoa:

Aldaketa puntualaren eremua Lezako udalerriko 5 poligonoko 652 lurzatiari dagokio. Lurzati hori herrigunearen hegoaldean dago. Arabako katastrofik ateratako hurrengo irudian, aipatutako lursaila nabarmentzen da, kolore urdinxkan, eta bertan dauden ekipamenduak (igerilekuak, taberna-gizarte zentroa, aldagelak eta kirol pista) laranja kolorean:



Ortoargazki irudi honetan, 652 lursailaren hegoaldeko eremua seinatzen da. 235 m²-ko azalera du eta bertan ezarri nahi da erabilera berria, aipatutako aldaketa puntualaren bidez.



1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan azaltzen denez, lau aukera hartu dira kontuan, baina, horretarako, hiru aldagai hartu dira aintzat:

- Kokapena: Aldagai hau lehenetsita dago, kokapena 652 lurzatia baita, Lezako herrigunearen barruko udal jabetzako bakarra.
- Erabilera: Hauek ere alde aurretik zehaztuta daude; izan ere, aldaketa puntuala sortu da udalak interesa duelako kultura, osasun eta laguntza erabilerrako instalazioak izateko.
- Antolamendua: Etorkizuneko instalazioak hainbat lekutan koka litezke 652 lurzatiaren eremuan.

Horiek horrela, hauek dira aukerak, labur-labur:

- “0” aukera edo ez jardutekoa (Ez da hautatu): Egungo hirigintza egoerari eustea litzateke; ondorioz, 5 poligonoko 652 lurzatiak egun dituen erabilera berberak izango litzuzke.
- “1” aukera (Ez da hautatu): 652 lurzati osoan erabilera berriak baimentzea litzateke.
- “2” aukera (Ez da hautatu): Aldaketa puntual honetan aurreikusitako erabilerak 652 lurzatiaren iparraldean edo erdialdean dagoen zatian aldatzea litzateke.
- “3” aukera (hautatua): Aldaketa puntual honetan aurreikusitako erabilerak 652 lurzatiaren hegoaldeko zati batean soilik aldatzea litzateke. Zati horrek 235 m²-ko azalera izango luke.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2021ko ekainaren 4an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duten adierazi da:

URA Uraren Euskal Agentzia	X
Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Energia, Meategi eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Aranzadi Zientzia Elkartea	
Energiaren Euskal Erakundea	
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Lezako Udala	
Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua	

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo gogoeten kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 21/85 espedientean eta www.araba.eus web orrian):

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak txosten bat egin du, eta, bertan, proposamenaren laburpena egin ondoren, ondorioztatzen du proposatutako aldaketa Lezako herri-gunera mugatzen dela, eta ez diola landa lurzoruari eragiten, ez eta nekazaritza eta abeltzaintza jarduerari ere. Horrez gain, jakinarazten du proiektuak ez diela eragiten Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erregistroan inskribatutako landa bideei.

- URA Uraren Euskal Agentziak lehenengo txosten bat eman zuen, eta bertan zehaztu zuen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri ziola, egokitzat joz gero gaiari buruzko txostena egin zezan, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Bigarren txosten batean, planaren laburpen bat eta jabari publiko hidraulikoaren babesari, hornidurari eta saneamenduari buruzko zenbait gogoeta egin ondoren, honako hau ondorioztatzen du:

- Hirigintza izapideen ondorengo faseetan behar berrien kalkulua egin beharko da, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak adierazi dezan planteatu den hirigintza garapena bermatzeko baliabide hidrikorik dagoen ala ez.

- Hurrengo izapidetze faseetan erakunde kudeatzailearen txostena aurkeztu beharko da, bai hornidura sarerako, bai saneamendu sarerako, ur baliabideen behar berriei eta hondakin uren karga berriei aurre egiteko behar adina azpiegitura daudela bermatzeko.

- Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak txostena eman du eta honako hau adierazi du: "lurzatian Lezako arau subsidiarioetako ondare historiko-arkitektonikoaren katalogoko elementuak daude: 6 zenbakia (6-8 Mayor etxea) eta 22 zenbakia (igerilekuen iturria). Hala ere, aldaketak lurzatiaren zati bati eragiten dionez baina ez elementu horiei, zerbitzu honen ustez, ez dago eraginik Ondare Historiko-Arkiektonikoaren Zerbitzuaren ikuspuntutik".

3. Ingurumen balorazioa. Ingurumen inpaktu nagusiak

Erreferentziako aldaketa puntualak, behin betiko onetsiz gero, ez luke ingurumen inpaktu nabarmenik izango, baldin eta ingurumen integrazioko neurri egokiak ezarriko balira. Aldaketa puntualak ekarriko lukeen erabileren eraldaketa ez litzateke muturrekoa izango; izan ere, lurzatiak eta horren hegoaldean dagoen 235 m²-ko eremuak ez lukete zuzkidura erabileraren kalifikazioa galduko, eta, besterik gabe, berdegune izatetik (benetan, zentzu hertsian, hala ez bada ere) ekipamendu publiko izatera pasako litzateke. 652 lurzatiaren hegoaldean, baina aldaketa puntualaren xede den 235 m²-ko eremutik kanpo, hiru platano itzaltsu daude (*Platanus hispánica*). Zuhaitz apaingarriak badira ere, egokitzat jotzen da horiek mantentzea, berdegune gisa kalifikatutako eremu batean baitaude, eta duten estetika eta paisaia balioagatik. Nolanahi ere, eta ingurumen dokumentu estrategikoak horri buruz ezer adierazten ez badu ere, planteatutako aldaketa puntualak ez luke eraginik izan beharko ale horietan.

Argi dago aldaketa puntualak aukera emango duela herritarrei zerbitzu soziokultural berriak eskaintzeko eta egungo eskaintza zabaltzeko eta horrek udalerriko bizi baldintzak hobetzea dakarrela, eta, beraz, biztanleria finkatzen lagun dezake.

Bestalde, aldaketa puntualak erabilera berriak hartuko lituzketen eraikinak eraikitzea ahalbidetuko luke, hori baita Lezako Udalaren azken helburua, eta horrek gaur egun dauden hornidura eta saneamendu azpiegiturretan ondorioak izango lituzke, eta horren inguruko neurriak hartu beharko lirateke.

Azkenik, aipatu behar da aldaketa hau ezartzeak izan ditzakeen ondorioak urbanizazio eta eraikuntza obrak gauzatzeak eragindakoak izango direla. Eraginak aldi baterakoak izango dira, eta obrak bukatu bezain laster amaituko dira. Horri dagokionez, ingurumen integrazioko neurriak ezarri beharko dira.

4. Ingurumen baldintzak

Ingurumen dokumentu estrategikoan jasotako prebentzio eta zuzenketa neurriez (13. apartatua) eta haien ingurumen jarraipenaz gain (14. apartatua), hirigintza dokumentuak babes eta zuzenketa neurri hauek aztertu beharko ditu berariazko araudian sartzeko:

– Egungo kontserbazio egoeran errespetatu beharko dira 652 lurzatian dauden zuhaitzak, berdegune gisa kalifikatutako eremuetan badaude.

– Hirigintza izapideen ondorengo faseetan behar berrien kalkulua egin beharko da, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak adierazi dezan planteatu den hirigintza garapena bermatzeko baliabide hidrikorik dagoen ala ez.. Hurrengo izapidetze faseetan erakunde kudeatzailearen txostena aurkeztu beharko da, bai hornidura sarerako, bai saneamendu sarerako, ur baliabideen behar berriei eta hondakin uren karga berriei aurre egiteko behar adina azpiegitura daudela bermatzeko.

– Obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegitratzeko ontzi estankoak, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk erabili beharko dira. Debekaturik dago erabilitakoak isurtzea: baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikuntza materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak hondakin degi edo zabortegei baimenduetara eraman beharko dira. Eraikuntza eta eraispn hondakinak sortzen badira, Eraikuntza eta Eraispn Hondakinen Ekoizpena eta Kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa Lezako arau subsidiarioen 6. aldaketa puntualaren ingurumen txosten estrategikoa formulatzea.

Bigarrena. Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena Agintzea ingurumen txosten estrategikoa hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 7a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA